



ILARGIREN KILLASISA KONTZERTUA

BIOAK

MULTIMEDIA

KONTZERTUAK

KOMUNIKABIDEETAN

SAREAN

KONTAKTUA



booking@ilargi.eus



+34 638393223

BIO

ERTAINA

2000. urtean jaio nintzen, denok bezala, bihotz taupaden bitartez musika barnean nuelarik. Barnean ez ezik, musika hau kanpoan ere entzun nahi nuen, eta musikaren hizkuntza ikastea erabaki nuen 7 urte nituelarik, baita euskal dantza eta antzerkia ere, arte eszenikoetan nire barneko mundua kanporatu nezakeelako.

Pasioarekin hazi nintzen. Abestien bertsioen bitartez, nire zati bat munduari erakutsi niezaiokeela ikusi nuen, eta 2019.urtean, bizi dugun garai elektronikoa kontuan hartuta, bertsio hauek sare sozialetara igotzeari ekin nion. Gauza batek bestera eraman ninduen, eta bakarkako kontzertuak eskaintzen ere hasi nintzen. Bidea jarraituz, udaberrian irtengo den zortzi abestiko disko bat grabatu nuen, indie, pop eta pop rock estiloen artean dantzatzuz, eta aldi berean, etiketatatik ihes egin nahian.

MOTZA

Txikitan hasi nintzen musikari buruz ikasten, eta honen bitartez, bitartez nire barne mundua kanporatzen dut. Udaberrian, nire lehen diskoa kaleratuko dut, zortzi abesti eta ilusio askorekin osaturik dagoena.

LUZEA (SAKATU)

BIO LUZEA

2000. urtean jaio nintzen, denok bezala, bihotz taupaden bitartez musika barnean nuelarik. Barnean ez ezik, musika hau kanpoan ere entzun nahi nuen, eta musikaren hizkuntza ikastea erabaki nuen 7 urte nituelarik, baita euskal dantza eta antzerkia ere, arte eszenikoetan nire barneko mundua kanporatu nezakeelako.

Denbora aurrera joan ahala, arte hauekiko interesa handituz joan zen, eta arlo ezberdinei buruz ikasteari ekin nion. Adina eduki nuenean, Dantzertin Arte Dramatikoko ikasketak burutzea erabaki nuen, nirekin hazi eta hazten dabilen barne mundu hori munduari erakusteko moduak ikasi nahian.

Abestien bertsioen bitartez, nire zati bat munduari erakutsi niezaiokeela ikusi nuen, eta 2019.urtean, bizi dugun garai elektronikoa kontuan hartuta, bertsio hauek sare sozialetara igotzeari ekin nion. Gauza batek bestera eramán ninduen, eta bakarkako kontzertuak eskaintzen ere hasi nintzen.

Txikitatik nekarren gustua jarraituz, abesti propioak idazten jarraitzen nuen, eta disko bat grabatzea pentsatu nuen, nire barneko zati hori lekuren batean dokumentatu nahian. Mutrikuko AME Estudioarekin kontaktuan jarri nintzen, eta haren bitartez Iker Laurobarekin. Horrela, Haritz eta Iker Laurobak abestiak apaindu eta gorpuzten lagundu zidaten, eta azkenik hemen da zortzi abestiko diskoa, udaberrian irtengo dena. Zuzenekoei begira, banda bat sortzea erabaki nuen, abestiak kolorez betetzeko, eta hala sortu nuen zuzenekoetan nirekin batera arituko den banda, bateria, baxu, bi gitarrista eta pianistarekin.

MULTIMEDIA

ARGAZKIAK



KONTZERTUAREN TRAILERRA



DISKOA



(Gehiago ikusteko sakatu argazkien gainean)



KONTZERTUAK

BI FORMATU

TALDEAN

Taldeko kontzertuetan Killasisa diskoko abestiak joko ditugu, baita bertsio akustikoren bat ere. Ikusleak, abesti bakoitzak atzean dakarren istorioan zehar bidaiatzea da gure helburua, entzunaldi sinple bat izan ez dadin. Euskara izango da nagusi kontzertuetan, ia abesti guztiak euskaraz baitira, eta ama hizkuntzaren bitartez egiten diren bidaiak askoz bereziagoak direlako. Pop, pop rock eta indie estiloen inguruan dabilta dantzan abestiak, aldi berean etiketatik ihes egin nahian. Bidaia honen gidari modura sei pertsona arituko gara, ni, Ilargi, abeslaria naizelarik eta bi gitarrista, bajista, pianista eta bateria nirekin batera istorio bakoitza gorpuzten dutelarik. Bidaia hauek ordu bete inguruko iraupena edukiko dute. Ondoren, jendearekin hitz egiteko tarteak ere ireki daitezke.

BAKARKA

Bakarkako kontzertuetan, Killasisa diskoko abestiak joko ditut, baita bertsioak ere. Ikusleak, gitarra eta ahotsaren soinuaz, abesti bakoitzeko istorioan zehar bidaiatzea da nire helburua, emozioak dantzan jar daitezen. Bidaia hau euskaraz burutuko dugu, nire barnean dabilen hizkuntza delako. Abestiak pop eta indie estiloan arituko dira dantzan, nahiz eta batzuetan etiketen kaiolatik irten daitezkeen. Bidaia intimista honen iraupena ordu bete ingurukoa izango da. Ondoren, jendearekin hitz egiteko tarteak ere ireki daitezke.

KOMUNIKABIDEETAN

NAIZ



'Betirarte' aurrerapen kantua aurkeztu du Ilargi abeslariak

Ilargi abeslariak bere lehen diskoko lehen singlea aurkeztu du, 'Betirarte'. «Artifizialtasuna eta kapitalismoa nagusi diren mundu honetan, benetan maitatzeaz» mintzatu nahi izan du Lezoko sortzaile gazteak.

NAIZ

GAZTE ZULO

Ilargi gaztea da, baina ideiak argi izan ditu beti. Izan ere, Lezoko abeslari eta sortzailea haur zenetik hasi zen musikaren inguruko alor ezberdinak ikasten eta Instagramera (@ilargi_a) euskal artista ezberdinek abestien bertsioak igotzen. Bakarkako kontzertuak eskaintzen ere hasi zen, eta hor sortu zitzaion bere abesti propioak idazteko harra. Hori dela eta, 2020an Mutrikuko AME estudioan, udaberrian aterako den zortzi abestiko disko bat grabatu du. Lehen singlea, *Betirarte*, abesti leun eta sentikorra da.

ILARGI - "BETIRARTE"

20 urteko abeslari lezoarrak bere lehen diskoa grabatzen aritu da eta udaberrian iritsiko da honen emaitza.

Txiki-txikia zenetik izan du Gustuko Ilargi Arrizabalagak musika eta batez ere kantuan aritzea, baita oholza bat zapaltzeko bokazioa bera ere. Joan zen urtean bere lehen diskoa grabatzen aritu zen eta aurreratutako informazioaren arabera udaberrian iritsiko da emaitza, bitartean itxaron egin beharko dugularik. Urtarrilean 'Betirarte' kantua zabaldu zuen lau haizetara eta gaitu nolanahi utzi gainera, bere kutsu berezia duela esan genezake eta goxotasun horrek zerbait berezia helarazi digu.

ATAUN IRRATIA

SAREAN



[WEBGUNEA: ilargi.eus](http://ilargi.eus)

